

**EUSKAL MEZA, 2021 URTARRILAK 31 / JANUARY 31, 2021
URTEAN ZEHAR IV IGANDEA / SUNDAY IV ORDINARY TIME (B)
MEZA SANTUA- ORDINARY OF THE MASS**

HASIERAKO ABESTIA/ENTRANCE SONG

<p>Zein gozo ta eder den anaiok elkartu eta denok batera Jainkoa goratu.</p> <p>Gora bihotzak! eta guztiok egin kantu, Jainkoak bere eskuz salbatuko gaitu.</p> <p>Zabal gogoak Jaunaren hitza entzuteko: haren nahia jakinik zuzen ibiltzeko.</p>	<p>How good and sweet it is brothers to live together, and all to praise the Lord.</p> <p>Lift your hearts! And all sing praises. God saves us with his hand.</p> <p>Open your heart to listen to the Word of God, Knowing his will, you may walk in righteousness.</p>
---	--

HASIERAKO OHIKUNEAK-INTRODUCTORY RITES

<p>† Aitaren, eta +Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean. ◎ Amen. AGURRA † Jesukristo gure Jaunaren grazia, eta Jainko Aitaren maitasuna, eta Espiritu Santuaren batasuna izan bedi zuekin. ◎ Eta zure espirituarekin.</p>	<p>† In the Name of the Father, + and of the Son, and of the Holy Spirit. ◎ Amen. Greeting † The grace of our Lord Jesus Christ, and the love of God, and the communion of the Holy Spirit be with you all. ◎ And with your spirit.</p>
--	--

DAMU OTOITZA- PENITENTIAL RITE

<p>† Senide maiteok, aitor ditzagun gure bekatuak, misterio santu hauek ospatzeko gai izan gaitez.</p> <p>† Jesus Jauna, bihotz urratuak salbatzera bidalia: erruki, Jauna. ◎ Erruki, Jauna. † Jesus Jauna, bekatarietako dei egitera etorria: Kristo, erruki. ◎ Kristo, erruki. † Jesus Jauna, gure alde otoi egiteko, Aitaren eskuinaldean zaituguna: erruki, Jauna. ◎ Erruki, Jauna. † Erruki dakiguelako Jainko guztiz ahaltsua eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara. ◎ Amen.</p>	<p>† Brethren (brothers and sisters) let us acknowledge our sins, and so prepare ourselves to celebrate the sacred mysteries.</p> <p>† You raise the dead to life in the Spirit: Lord, have mercy. ◎ Lord, have mercy. † You bring pardon and peace to the sinner: Christ, have mercy. ◎ Christ, have mercy. † You bring light to those in darkness: Lord, have mercy. ◎ Lord, have mercy. † May almighty God have mercy on us, forgive us our sins, and bring us to everlasting life. ◎ Amen.</p>
---	--

AINTZA ZERUETAN JAINKOARI/GLORY TO GOD IN THE HIGHEST

<p>Aintza zeruetan Jainkoari eta bakea lurrean Haren gogoko gizakiei. Hain handi eta eder zaitugulako, gora Zu, bedeinkatua Zu, gorespen Zuri, ahuspez agur, eskerrak Zuri. Jainko Jauna, zeruko Errege, Jainko Aita guztialduna. Jauna, Seme bakar, Jesu Kristo, Jainko Jauna, Jainkoaren Bildots, Aitaren Seme: Zuk kentzen duzu munduko bekatua; erruki, Jauna; Zuk kentzen duzu munduko bekatua; entzun gure deia. Aitaren eskuinaldean jarririk zaude Zu; erruki, Jauna. Zu bakarrik Santua, Zu bakarrik Jauna, Zu bakarrik Goi-goikoa, Jesu Kristo, Espiritu Santuarekin Jainko Aitaren argitan. Amen.</p>	<p>Glory to God in the highest, and peace to His people on earth. Lord God, heavenly King, Almighty God and Father, we worship You, we give You thanks, we praise You for Your glory. Lord Jesus Christ, only Son of the Father, Lord God, Lamb of God, You take away the sin of the world: have mercy on us; You are seated at the right hand of the Father: receive our prayer. For You alone are the Holy One, You alone are the Lord, You alone are the Most High, Jesus Christ, with the Holy Spirit, in the glory of the Father. Amen.</p>
--	--

MEZAKO OTOITZA-OPENING PRAYER

<p>† Egin dezagun otoitz,</p> <p>Jainko ahalguztidun betikoa, zuzendu gure biziak zure nahi santura, fruitu on ugari eman ditzagun. Jesukristo gure Jaunaren bitartez, Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean, errege bizi bait da, gizaldi eta gizaldietan.</p> <p>☉ Amen.</p>	<p>† Let us Pray,</p> <p>Grant us, Lord our God, that we may honor you with all our mind, and love everyone in truth of heart. Through our Lord Jesus Christ, your Son, who lives and reigns with you in the unity of the Holy Spirit, one God, for ever and ever.</p> <p>☉ Amen.</p>
--	---

HITZAREN LITURGIA-Liturgy of the Word **Lehenengo Irakurgaia-First Reading** **Deuteronomioa Liburua/ Dt 18:15-20**

<p>Deuteronomioa Liburutik</p> <p>15 Jaunak zuen Jainkoak ni bezalako profeta sortuko du zuen artetik, herritarren artetik. Entzun berari! 16 Horixe da, Horeb mendian bildurik zeundetela Jaunari zeuen Jainkoari eskatu zeniotena: “Ez dugu Jaunaren geure Jainkoaren ahotsa berriro entzun nahi, ezta sute hori ikusi nahi ere, hil egingo baikara bestela”. 17 Orduan, Jaunak esan zidan: “Ongi deritzot herriak esandakoari. 18 Zu bezalako profeta sorraraziko dut herritarren artetik; neure hitzak ezarriko dizkiot ahoan eta nik agindurikoa esango die. 19 Profetak nire izenean adierazitako mezua onartuko ez duenari, neuk eskatuko dizkiot kontuak. 20 Baina nik agindu gabeko mezua nire</p>	<p>From the First Book of Deuteronomy</p> <p>Moses spoke to all the people, saying: “A prophet like me will the LORD, your God, raise up for you from among your own kin; to him you shall listen. This is exactly what you requested of the LORD, your God, at Horeb on the day of the assembly, when you said, ‘Let us not again hear the voice of the LORD, our God, nor see this great fire anymore, lest we die.’ And the LORD said to me, ‘This was well said. I will raise up for them a prophet like you from among their kin, and will put my words into his mouth; he shall tell them all that I command him. Whoever will not listen to my words which he speaks in my name, I myself</p>
--	---

izenean adierazten edota jainko arrotzen izenean hitz egiten ausartzen den profeta hil egingo dute”.

□ **Jaunak esana!**

☉ Eskerrak zuri Jauna!

will make him answer for it. But if a prophet presumes to speak in my name an oracle that I have not commanded him to speak, or speaks in the name of other gods, he shall die.”

□ **The Word of the Lord!**

☉ Thanks be to God!

ERANTZUN-SALMOA/RESPONSORIAL PSALM 95: 1-2,6-7,7-9

R. Gaur Jaunaren mintzoa entzuten baduzue, ez gogortu zuen bihotzak.

Zatozte, egiogun poz-oihu Jaunari, poz-irrintzi salbatzen gaituen harkaitzari! Aurkez gakizkion eskerrak eman ez, poz-irrintzi eta kantuz. **R.**

Zatozte, gurtu dezagun ahuspezturik, belaunika gaitezen egin gaituen Jaunaren aurrean! Bera da gure Jainkoa, eta gu hark larraturiko herria, haren gidaritzapeko artaldea. **R.**

Egingo al diozue gaur kasu haren esanari: «Ez gogortu bihotzak zuen gurasoek Meriban bezala, Masako egun hartan basamortuan bezala aurpegi eman eta probatu egin baininduten, nik haien alde egina ikusi arren. **R.**

R. If today you hear his voice, harden not your hearts.

Come, let us sing joyfully to the LORD; let us acclaim the rock of our salvation. Let us come into his presence with thanksgiving; let us joyfully sing psalms to him. **R.**

Come, let us bow down in worship; let us kneel before the LORD who made us. For he is our God, and we are the people he shepherds, the flock he guides. **R.**

Oh, that today you would hear his voice: “Harden not your hearts as at Meribah, as in the day of Massah in the desert, Where your fathers tempted me; they tested me though they had seen my works.” **R.**

Bigarren Irakurragia-Second Reading

Korintoarrei Lehen Eskutitza/ 1 Cor 7:32-35

Korintoarrei Lehen Eskutitzetik

Senideok:

32 Kezka guztiak kendu nahi nizkizueke. Ezkongabea Jaunaren gauzez kezkatzen da, Jaunari atsegin nola emango; **33** ezkondua, berriz, munduko gauzez, bere emazteari atsegin nola emango, **34** eta bere baitan zatitua dago. Emakume ezkongabea eta neskatxa Jaunaren gauzez kezkatzen dira, eta beroni gorputz-arimaz emanak bizi dira; ezkondua, berriz, munduko gauzez, bere senarrari atsegin nola emango. **35** Hau zeuen onerako diotsuet, ez ezertan behartu nahi zaituztedalako. Hau da nahi dudana:

From the First Letter to the Corinthians

Brothers and sisters:

I should like you to be free of anxieties. An unmarried man is anxious about the things of the Lord, how he may please the Lord. But a married man is anxious about the things of the world, how he may please his wife, and he is divided. An unmarried woman or a virgin is anxious about the things of the Lord, so that she may be holy in both body and spirit. A married woman, on the other hand, is anxious about the things of the world, how she may please her husband. I am telling you this for your own benefit, not to impose a restraint upon you, but for

<p>era egokienean bizi zaitezela, oso-osorik Jaunari atxikiak.</p> <p>☐ Jaunak esana! ◎ Eskerrak zuri Jauna!</p>	<p>the sake of propriety and adherence to the Lord without distraction.</p> <p>☐ The Word of the Lord! ◎ Thanks be to God!</p>
--	--

ALELUIA-ALLELUIA

<p>R. Aleluia, aleluia. Ilunpetan zegoen herriak argi handia ikusi du. Itzalpean bizi zirenei argiak egin die distira. R. Aleluia, aleluia.</p>	<p>R. Alleluia, alleluia. The people who sit in darkness have seen a great light; on those dwelling in a land overshadowed by death, light has arisen. R. Alleluia, alleluia.</p>
---	---

EBANJELIOA-GOSPEL

<p>† Jauna zuekin. ◎ Eta zure espirituarekin. † Jesukristoren Ebanjelioa San I.(r) en liburutik ◎ Aintza Zuri, Jauna. † Jaunak esana. ◎ Eskerrak Zuri, Jauna</p>	<p>† The Lord be with you ◎ And with your spirit † A Reading from the Holy Gospel according to N ◎ Glory to you, O Lord. † The Gospel of the Lord. ◎ Praise to you, Lord Jesus Christ.</p>
--	---

Ebanjelioa San Joanen Liburutik/ Mk 1:21-28

<p>21 Orduan, Kafarnaumen sartu ziren. Eta, larunbatean sinagogara joanik, irakasten hasi zen Jesus. 22 Haren irakaspenez txunditurik zegoen jende guztia, nagusitasunez irakasten baitzien eta ez lege-maisuek bezala. 23 Bazen, hain zuzen, sinagoga hartan espiritu gaiztoaren menpe zegoen gizon bat. Eta oihuka ekin zion: 24—Zer duk gurekin, Nazareteko Jesus? Gu hondatzera al hator? Bazekiat nor haizen: Jainkoaren Santua. 25 Jesusek gogor eraso zion: —Isil hadi eta irten horrengandik! 26 Espiritu gaiztoak astinaldi gogorra eman zion eta, garrasi handia eginez, atera egin zen harengandik. 27 Guztiz ikaraturik gelditu ziren denak, elkarki galdezka: «Zer dugu hau? Irakaspen berria, eta nolako nagusitasunez emana gainera! Espiritu gaiztoei ere agintzen die eta hauek esana egiten!» 28 Laster zabaldu zen Jesusen entzutea Galilea aldeko bazter guztietara.</p> <p>☐ Jaunak esana! ◎ Eskerrak Zuri, Jauna!</p>	<p>Then they came to Capernaum, and on the sabbath Jesus entered the synagogue and taught. The people were astonished at his teaching, for he taught them as one having authority and not as the scribes. In their synagogue was a man with an unclean spirit; he cried out, “What have you to do with us, Jesus of Nazareth? Have you come to destroy us? I know who you are—the Holy One of God!” Jesus rebuked him and said, “Quiet! Come out of him!” The unclean spirit convulsed him and with a loud cry came out of him. All were amazed and asked one another, “What is this? A new teaching with authority. He commands even the unclean spirits and they obey him.” His fame spread everywhere throughout the whole region of Galilee.</p> <p>☐ The Word of the Lord! ◎ Praise to you, Lord Jesus Christ!</p>
---	---

HOMILIA-HOMILY SINESMENAREN AITORMENA-PROFESSION OF FAITH

APOSTOLUEN AITORMENA

† Sinesten dut Jaungoiko Aita ahalguztidun,

☉ Sinisten dut, Sinisten dut!

†☉zeru-lurren egilea. Sinesten dut Haren Seme bakar Jesukristo gure Jauna, Espiritu Santuaren egitez sortu eta Andre Maria Birjinagandik jaiotzen zena; Pontzio Pilatoren menpean nekalduta; gurutzatuta, hila eta hobiratu izan zena; infernuetara jaitsi eta hirugarren egunean hilen artetik piztu zena; zeruetara igo eta Aita Jaungoikoaren eskuin aldean jarririk dagoena; handik biziak eta hilak epaitzera etorriko dena.

☉ Sinisten dut, Sinisten dut!

Sinesten dut Espiritu Santua, Eliza santu katolikua, santuen elkartasuna, bekatuen barkamena, hildakoen piztuera eta betiko bizitza.

☉ Amen.

☉ Sinisten dut, Sinisten dut!

APOSTLES' CREED

† I believe in God, the Father almighty,

†☉ Creator of heaven and earth, and in Jesus Christ, his only Son, our Lord, who was conceived by the Holy Spirit, born of the Virgin Mary, suffered under Pontius Pilate, was crucified, died and was buried; he descended into hell; on the third day he rose again from the dead; he ascended into heaven, and is seated at the right hand of God the Father almighty; from there he will come to judge the living and the dead. I believe in the Holy Spirit, the holy catholic Church, the communion of saints, the forgiveness of sins, the resurrection of the body, and life everlasting.

☉ Amen.

JAINKO-HERRIAREN OTOITZA-PRAYER OF THE FAITHFUL

+ Brothers and Sisters: as we come to the end of the first month of the new year, and moved by the power of the Holy Spirit, let us pray to God who is rich in mercy:

1. That Jesus, accompanied by his disciples, may bring about unity and harmony among the many nations of the world, and peace and harmony in our families, **we pray to the Lord.**
2. That the knowledge and a deeper experience of the encounter with Jesus, may bring us into closer union with those which the society tends to reject or ignore, **we pray to the Lord.**
3. That the poor, the sick, and all who suffer may be filled with the life of Jesus and experience the loving presence of God in their lives, **we pray to the Lord.**
4. We pray for all those who are sick, that they recover and re-gain their health. We pray also for all who are working on the front line of health services during this pandemic. Keep them and their families safe and healthy. **We pray to the Lord.**
5. We pray for everyone who has a loved one, or jobs, or has been negatively affected by the pandemic, that they may recover, with the help of Our Lady Mary, Queen of Peace. **We pray to the Lord.**
6. That the distribution of vaccines may be made in a fair and just manner, in such a way, that all, particularly the most disadvantaged, may have access to it, **we pray to the Lord.**
7. For our departed brothers and sisters: May the merciful God give them eternal rest, and bring consolation and solace to their families, **we pray to the Lord.**

+ Lord God, we know that it is You who saves us, and that our actions add nothing to Your greatness. Take good care of us your children. We ask you this through Christ our Lord.
R/. Amen.

EUKARISTIAREN LITURGIA-EUCHARISTIC LITURGY ESKAINZA ABESTIA/OFFERTORY SONG

Hartu Aita Zerukoa	Receive, Heavenly Father
<p>Hartu Aita, zerukoa, Jainko ta Jaun betikoa, Hartu gure eskaintza: Ogia eta ardoa.</p> <p>Hona ogia, guziz garbia, Arren, denori, eman grazia; Eta hileri, zure bizia.</p> <p>Hona ardoa, zerurakoa Heldu bekigu honen gozoa, Salba dadila mundu osoa.</p>	<p>Receive Heavenly Father, Eternal Lord and God, Receive our offering: Bread and wine.</p> <p>Here is the bread, immaculate, We pray, you give you grace to all; To the dead your live.</p> <p>Here is the heavenly wine We may receive its taste, The whole world be saved.</p>

OPARI ESKAINZA-OFFERTORY

<p>† Bedeinkatua Zu, Jauna, zeru-lurren Jaungoikoa: zure esku zabaletik hartu dugu orain ekarri dizugun ogi au, lurraren indarrak eta gizonaren lanak sortua: hauxe egingo zaigu biziaren ogi.</p> <p>☉ Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.</p> <p>† Bedeinkatua Zu, Jauna, zeru-lurren Jaungoikoa: zure esku zabaletik hartu dugu orain ekarri dizugun ardo hau, mahatsondoaren indarrak eta gizonaren lanak sortua: hauxe gingo zaigu betiko zorionaren edari.</p> <p>☉ Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.</p> <p>† Senideok: egin dezagun otoitz, guztiok batean, Eliza osoaren oparia Jaungoikoari eskaintzerakoan.</p> <p>☉ Jainkoa gorestekoa eta gizona salbatzeko.</p>	<p>† Blessed are you, Lord God of all creation, for through your goodness we have received the bread we offer you: fruit of the earth and work of human hands, it will become for us the bread of life.</p> <p>☉ Blessed be God for ever.</p> <p>† Blessed are you, Lord God of all creation, for through your goodness we have received the wine we offer you: fruit of the vine and work of human hands; it will become our spiritual drink.</p> <p>☉ Blessed be God for ever.</p> <p>† Pray brothers and sisters, that my sacrifice and yours may be acceptable to God, the almighty Father.</p> <p>☉ May the Lord accept the sacrifice at your hands for the praise and glory of his name, for our good and the good of all his holy Church.</p>
--	---

OPARIGAIEN GAINEKO OTOITZA-PRAYER OVER THE GIFTS

<p>† Hona hemen, Jauna, altara gainean zure zerbitzarion eskaintza; har ezazu begi onez, eta egin guretzat sakramentu salbagarri. Jesukristo gure Jaunaren bitartez.</p>	<p>† O Lord, we bring to your altar these offerings of our service: be pleased to receive them, we pray, and transform them into the Sacrament of our redemption. Through Christ our Lord.</p>
--	--

R/. Amen.

R/. Amen.

EUKARISTI OTOITZA-THE EUCHARISTIC PRAYER

† **Jauna zuekin**

⊙ Eta zure espirituarekin.

† **Gora bihotzak.**

⊙ Jaunagan dauzkagu.

† **Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.**

⊙ Egoki da eta zuzen.

† Egoki da, bai, eta zuzen non-nahi eta beti Zuri eskerrak ematea, Jauna, Aita guztiz santu, Jaungoiko Ahalguztidun betiereko Horri, Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

Maitasunez ospatzen dugu Haren heriotza, fede biziz aitortzen dugu Haren piztuera, eta itxaropen sendoz Haren aintzazko etorrera espero dugu.

Horregatik, aingeru eta goi-aingeruekin, eta zeruko talde guziekin etengabe goratarre hau abesten dizugu:

⊙ **Santu, Santu, Santua, diren guztien Jainko Jauna. Zeru-lurrak beterik dauzka zure distirak. Hosanna zeru-goienetan! Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena. Hosanna zeru-goienetan!**

† The Lord be with you.

⊙ **And with your spirit.**

† Lift up your hearts.

⊙ **We lift them up to the Lord.**

† Let us give thanks to the Lord our God.

⊙ **It is right and just.**

† It is truly right and just, our duty and our salvation, always and everywhere to give you thanks, Lord, holy Father, almighty and eternal God, through Christ our Lord.

His Death we celebrate in love, his Resurrection we confess with living faith, and his Coming in glory we await with unwavering hope.

And so, with all the Angels and Saints, we praise you, as without end we acclaim:

⊙ **Holy, Holy, Holy Lord God of hosts. Heaven and earth are full of your glory. Hosanna in the highest. Blessed is he who comes in the name of the Lord. Hosanna in the highest.**

EUKARISTIA OTOITZA II-EUCHARISTIC PRAYER II

† Santu zera, bai, Jauna, eta santutasun guztiaren iturri: Santu egizkizu, bada, ogi eta ardo hauek, zure Espiritua isuriz, Jesukristo gure Jaunaren gorputz † eta odol guretzat egin daitezten.

† Berak, saldu zutenean, eta bere gogoz gurutzera zihoala, ogia hartu eta, eskerrak emanez, zatitu zuen eta bere ikasleei eman zien, esanez:

**HARTZAZUE ETA JAN GUZTIOK
HONTATIK: HAU NIRE GORPUTZA DA-
TA, ZUENTZAT EMANGO DENA**

† Afal ondoan, berdin, kaliza harturik, berriz ere eskerrak emanez, bere ikasleei eman zien, esanez:

**HARTZAZUE ETA EDAN GUZTIOK
HONTATIK: HAU NIRE ODOLAREN**

† You are indeed Holy, O Lord, the fount of all holiness. Make holy, therefore, these gifts, we pray, by sending down your Spirit upon them like the dewfall, so that they may become for us the Body † and Blood of our Lord, Jesus Christ. † At the time he was betrayed and entered willingly into his Passion, he took bread and, giving thanks, broke it, and gave it to his disciples, saying:

**TAKE THIS, ALL OF YOU, AND EAT OF IT:
FOR THIS IS MY BODY
WHICH WILL BE GIVEN UP FOR YOU.**

† In a similar way, when supper was ended, he took the chalice and, once more giving thanks, he gave it to his disciples, saying:

**TAKE THIS, ALL OF YOU,
AND DRINK FROM IT:
FOR THIS IS THE CHALICE OF MY BLOOD,**

**KALIZA DA-TA, ITUN BERRI ETA
BETIKOAREN ODOLA, ZUENTZAT ETA
GUZTIENTZAT BEKATUAK
BARKATZEKO ISURIKO DENA. EGIZUE
AU NIRE OROIGARRI**

† **Hau da sinesmenaren misterioa.**

☉ Hil eta piztu zarela, Jauna: Zu berriz etorri arte, hau dugu, hau, berri ona!

† Horregatik, Jauna, zure Semearen heriotza eta piztuera gogoratuz, biziaren ogia eta salbamenaren kaliza eskaintzen dizkizugu, Zuri eskerrak emanez, aldarean zure zerbitzari onartu gaituzulako.

† Eta apalik eskatzen dizugu, Kristoren gorputz-odolak hartzen ditugunok Espiritu Santuak bat egin gaitzala.

† Gogoan izan, Jauna, mundu guztian zabaldurik dagoen zure Eliza: Eramazu maitasun osora, **I.** gure Aita Santuarekin, **I.** gure Artzaiarekin eta elizgizon guztiarekin batean.

† Gogoan izan, Jauna, (gaur) mundu honetatik Zuregana eraman duzun **I.** zure zerbitzaria. Heriotzean zure Semeararekin bat egin den hau, piztueran ere Berarekin bat izan dadila.

† Gogoan izan, Jauna pizteko itxaropenean joan diren gure senideak eta hildako guztiak: har itzazu zeure aurpegiaren argitan.

† Erruki zakizkigu, arren, guk guztiok betiko bizitza iritsi dezagun, Jaungoikoaren Ama Maria dohatsuarekin, Jose Santua haren senarrarekin, apostolu santuekin eta, gizaldi guztietan, zure adiskide izan diren santuekin: haiekin batean gorets zaitzagun, Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

† **Honen bitartez, Honekin eta Honengan, Zuri Aita Jaungoiko ahalguztidun Horri, Espiritu Santuarekin batean, ospe eta aintza guztia gizaldi eta gizaldi guztietan**

☉ **Amen.**

**THE BLOOD OF THE NEW
AND ETERNAL COVENANT,
WHICH WILL BE POUED OUT
FOR YOU AND FOR MANY
FOR THE FORGIVENESS OF SINS.
DO THIS IN MEMORY OF ME.**

† **The mystery of faith:**

☉ We proclaim your Death, O Lord, and profess your Resurrection until you come again.

† Therefore, as we celebrate the memorial of his Death and Resurrection, we offer you, Lord, the Bread of life and the Chalice of salvation, giving thanks that you have held us worthy to be in your presence and minister to you.

† Humbly we pray that, partaking of the Body and Blood of Christ, we may be gathered into one by the Holy Spirit.

† Remember, Lord, your Church, spread throughout the world, and bring her to the fullness of charity, together with **N.** our Pope and **N.** our Bishop and all the clergy.

† Remember your servant **N.**, whom you have called (today) from this world to yourself. Grant that he (she) who was united with your Son in a death like his, may also be one with him in his Resurrection.

† Remember also our brothers and sisters who have fallen asleep in the hope of the resurrection and all who have died in your mercy: welcome them into the light of your face.

† Have mercy on us all, we pray, that with the blessed Virgin Mary, Mother of God, with blessed Joseph her spouse, with the blessed Apostles, and all the Saints who have pleased you throughout the ages, we may merit to be co-heirs to eternal life, and may praise and glorify you through your Son, Jesus Christ.

† Through him, and with him, and in him, O God, almighty Father, in the unity of the Holy Spirit, all glory and honor is yours, for ever and ever.

☉ **Amen.**

JAUNARTEZEKO OHIKUNEA-COMMUNION RITE

† **Salbatzaileak agindu eta erakutsiari Jarraituz, beldur gabe esan dezagun:**

† **At the Savior's command and formed by divine teaching, we dare to say:**

†☉ Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere.
Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere gure zordunei barkatzen diegunez gero; eta ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen, baina atera gaitzazu gaitzetik.
†**Atera gaitzazu, Jauna, gaitz guztietatik; emaguzu bakea gure egunotan; zure errukiari esker bekatutik garbi bizi gaitzen eta estualdietan sendo, betiko zorionaren itxaropenean, Jesukristo gure salbatzailea noiz etorriko den zai gaudela**
☉ Zurea duzu erregetza, zureak ospe eta indarra orain eta beti.

†☉ **Our Father, who art in heaven, hallowed be thy name; thy kingdom come, thy will be done on earth as it is in heaven.**
Give us this day our daily bread, and forgive us our trespasses, as we forgive those who trespass against us; and lead us not into temptation but deliver us from evil.
† Deliver us, Lord, we pray, from every evil, graciously grant peace in our days, that, by the help of your mercy, we may be always free from sin and safe from all distress, as we await the blessed hope and the coming of our Savior, Jesus Christ.
☉ **For the kingdom, the power and the glory are yours now and forever.**

PAKEAREN OHIKUNEA RITE OF THE PEACE

†**Jesukristo gure Jauna, Zuk esana da apostoluei: “Bakea uzten dizuet, nire bakea ematen.” Begira zure Elizaren sinesmenari, eta ez gure bekatuei; eta, zure gogoa den bezala, emaiozu Elizari bakea, eman batasuna, Errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan.**
☉ Amen.
† **Jaunaren bakea beti zuekin.**
☉ Eta zure espirituarekin.
† **Emaiozue bakea elkarri.**
☉ Jaungoikoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua: erruki, Jauna.
Jaungoikoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua: erruki, Jauna.
Jaungoikoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua: emaguzu bakea.
† **Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa, hona munduko bekatua kentzen duena. Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!**
☉ Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko, baina esazu hitz bat, eta sendatuko naiz.
† Kristoren Gorputza.
☉ **Amen.**

† Lord Jesus Christ, who said to your Apostles, Peace I leave you, my peace I give you; look not on our sins, but on the faith of your Church, and graciously grant her peace and unity in accordance with your will. Who live and reign forever and ever.
☉ **Amen.**
† The peace of the Lord be with you always.
☉ **And with your spirit.**
† Let us offer each other the sign of peace.
☉ **Lamb of God, you take away the sins of the world, have mercy on us.**
Lamb of God, you take away the sins of the world, have mercy on us.
Lamb of God, you take away the sins of the world, grant us peace.
† Behold the Lamb of God; behold him who takes away the sins of the world. Blessed are those called to the supper of the Lamb.
☉ **Lord, I am not worthy that you should enter under my roof, but only say the word and my soul shall be healed.**
† The body of Christ.
☉ **Amen.**

JAUNARTZE ABESTIA/COMMUNION SONG

Ogi Zerutik Ogi zerutik etorria,	Bread from Heaven Bread from Heaven.
-------------------------------------	---

<p>zu zera gure poz guztia. (bis)</p> <p>Bildots santua hara hemen, munduko gaitza kentzearren. Sagrarioan non dagoen, lurra zeruaz bat egiten. Lurra zeruaz bat egiten.</p>	<p>You are our only happiness (Bis).</p> <p>Holy Lamb, here he is, Who to take away the sin of the world Finds himself in the Tabernacle Uniting earth and heaven Uniting earth and heaven.</p>
--	---

JAUNARTZE ONDORENGO OTOITZA-PRAYER AFTER COMMUNION

<p>+ Gure erospeneko sakramentu honen bitartez indar berriturik, Jauna, egizu, egiazko fedean betti aurrera egin dezagula.. Jesukristo gure Jaunaren bitartez.. R/. Amen.</p>	<p>+ Nourished by these redeeming gifts, we pray, O Lord, that through this help to eternal salvation true faith may ever increase. Through Christ our Lord. R/. Amen.</p>
--	---

BUKAERAKO OHIKUNEA BEDEINKAPENA-FINAL BLESSING

<p>† Jauna zuekin. ⊙ Eta zure espirituarekin. † Bedeinka zaitzatela Jaungoiko ahalguztidunak: Aitak eta Semeak + eta Espiritu Santuak. ⊙ Amen. † Zoazte Jaunaren bakean. ⊙ Eskerrak Jainkoari.</p>	<p>† The Lord be with you. ⊙ And with your spirit. † May almighty God bless you: the Father, and the Son, + and the Holy Spirit. ⊙ Amen. † Go forth, the Mass is ended. ⊙ Thanks be to God.</p>
---	--

AZKEN ABESTIA/FINAL SONG

<p>Agur, Jesusen ama, Birjina maitea, agur, itxasoko izar dizdiratzailea. Agur, zeruko eguzki pozkidaz betea. Agur, bekatarien, kaia ta estalpea. Agur, bekatarien, kaia ta estalpea.</p> <p>Baina Zugandik alde, bihotzak ezin du, Zuregana dijoa, Zugan bizi nahi du. Birjin berdingabea, onetsi nazazu: Agur, Ama nerea,</p>	<p>Hail, Mother of Jesus, Dear Virgin, Hail, twinkling Star of the Sea. Hail Joyful Sun of Heaven. Hail, haven, and porch of sinners. Hail, haven, and porch of sinners.</p> <p>From Thee far away, our heart cannot stand, It (our hearts) goes toward Thee. We want to live with You. Incomparable Virgin, Bless me; Hail, my mother,</p>
---	---

Agur, agur, agur.
Agur, Ama nerea,
Agur, agur, agur.

Hail, Hail, Hail.
Hail, my mother,
Hail, Hail, Hail.



Egun on bat opa dizuet
🙌 wish you a wonderful day



URTEKO LAUGARREN IGANDEA B

Lehen irakurgaia

(Etortzekoak diren denboretako profeta aipatzen du Moisek)

Deuteronoma liburutik 18,15-20

Hunela mintzatu zen Moises Izrael herriari: **15** “Jaunak, zuen Jainkoak, ni bezalako profeta sortuko du zuen artetik, herritarren artetik: entzunazue. **16** Horixe da, Horeb mendian bildurik zinezuela, Jaunari, zuen Jainkoari eskatu zeniotena, erranez: ‘ Ez dut berriz entzun nahi Jaunaren, nere Jainkoaren mintzoa, ez dut su handi hori berriz ikusi nahi, ez dut hil nahi!’ **17** Orduan Jaunak erran zautan: ‘ Ongi daukat herriak diona. **18** Zu bezalako profeta sortaraziko dut beren haurrideen artetik; nere hitzak ezarriko diozkat ahoan, eta nik manatuko diotan guzia erranen diote. **19** Profetak nere izenean adiaraziko dituen hitzak Onartuko ez dituenari, nik eskatuko diozkat konduak. **20** Bainan nik manatu gabeko hitza nere izenean adiaraztera ausartatzen den profeta, edo jainko arrotzen izenean mintzatuko dena, profeta hura hilen da.’ ”

Jaunak errana!

Eskerrak Zuri Jauna.

Salmoa 95 (94)

Leloa: Guziek egun bihotzez dugun Jauna entzun.

Zatozte, kanta Jainkoari,
Pizten gaituen Harrokari.
Joan gitzaiola soinuari,
Jaunari denak jauz kantari.
Zatozte, kanta Jainkoari.
Pizten gaituen Harrokari.

Zatozte haren otoizteko,
Gauden ahuspez belauniko.
Jaunak eginak garelako,
Hura dugu bai denek Jainko.
Gu Jaunarena den jendea,
Eskuz dabilan artaldea.

Egun agian, zuek egun,
Jainko Jaunaren deia entzun.
Ez bihotz gogor, otoi, izan
Nola Meriban eta Mazan.
Aitek han gogor egin zuten,
Nik eginer hotz egon ziren.

Bigarren irakurgaia

(Birjina Jaunarentza)

Jondoni Paulok 1 Korintiarreri 7,32-35

Haurrideak

32 nahi nuke griñarik gabe izan zaitezten. Ezkongabeak Jaunaren gauzez du griña, Jaunari atsegin nola eman. **33** Ezkonduak, aldiz, munduko gauzez du griña, bere emazteari atsegin nola eman, eta bere baitan zatitua da. **34** Emazte ezkongabea eta birjina Jaunaren gauzez griñatzen dira, eta hari gorputz eta arima emanak bizi dira. Ezkondua, berriz, munduko gauzez griñatzen da, bere senarrari atsegin nola eman. **35** Hau zuen onerako diot, ez zuek zepoan sartzeko. Nahi nuke egokiena egin dezazuen, osoki Jaunari atxikiak izan zaitezten.

Jaunak errana!

Eskerrak Zuri Jauna.

Ebanjelioa

Alleluia, alleluia

Goretsia izan bedi Jauna, gure Jainkoa; Ilunbetan daudenak goratik argitu ditu.

Jesu Kristoren Ebanjelioa san Marken liburutik 1, 21-28

21 Jesus eta dizipuluak Kafarnaumen sartu ziren. Eta, larunbatean, zinagogarat joan eta irakasten hasi zen. **22** Haren irakaspenaz harriturik zagon jendea, nagusitasunez irakasten baitzioten, eta ez lege-irakasleek bezala. **23** Bazen, hain xuxen, zinagoga hartan izpiritu gaixto batek hartu gizon bat; oihu egin zuen: **24** “Zer behar duzu gutarik, Nazaretoko Jesus? Gure galtzera etorria ote zira? Badakit nor ziren: Jainkoaren Saindua.” **25** Jesusek larderiatu zuen: “Ixil hadi eta atera gizon horrenganik!” **26** Izpiritu gaixtoak inarrosi zuen gogorki, eta orro handi bat eginez, harenganik atera zen. **27** Denak ikaraturik gelditu ziren, elkarri galdezka: “Zer dugu hau ? Irakaspen berria, nagusitasunez emana! Izpiritu gaixtoeri ere manatzen diote, eta heiek obeditzen!” **28** Berehala Jesusen omena Galilea aldeko bazter guzietarat zabaldu zen.

Jaunak errana!

Eskerrak Zuri Jauna.